



AKTEA/13

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA
(2025-05-13)

Batzarraren izaera:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2025-05-13 (Asteartea)
Lekua:	Udaletxe historikoko Osoko Bilkurako areto nagusia
Hasiera-ordua:	08:32
Amaiera-ordua:	08:37
Alkate-Presidentea:	NEMEH SHOMALY NADIA
Batzordekideak:	ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA ORTUZAR BUTRON XABIER GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE CARUEZO UGALDE MAITE
Bertaratu ez direnak:	URIARTE ANASAGASTI VICTOR
Idazkaria:	URIARTE LEJARRAGA JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012FD1700Z4P8L4A7N7W2

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 16/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 16/05/2025 10:56:24

DOCUMENTO: 2025124439

Data: 16/05/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2025-05-06 TGB (12)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Mañu auzoa 28 zk.ko etxe nagusiari lotutako lanabesentzako eraikuntza osagarria egiteko obra lizentzia eskaera onartzea.
- 4.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 5.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaietara heldu diete. Eraitza honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2025-05-06 TGB (12)

Bertaratutako batzarkideek 2025eko maiatzaren 6ko 12/2025 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDako PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

3.- MAÑU AUZOA 28 ZK.KO ETXE NAGUSIARI LOTUTAKO LANABESENTZAKO ERAIKUNTZA OSAGARRIA EGITEKO OBRA LIZENTZIA ESKAERA ONARTZEA.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012FD1700Z4P8L4A7N7W2

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 16/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 16/05/2025 10:56:24

DOCUMENTO: 2025124439

Data: 16/05/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Xedea

Mañu auzoko 28. zenbakia duen etxe nagusiari lotutako lanabesentzako eraikuntza osagarria egiteko obra baimena.

Aurrekariak

Lehenengoa.- 2024ko urtarrilaren 11an, M-D.A.G. andreak obra-lizentzia eskatu zuen Bermeoko Bide Etxe baserrian, Mañu auzoko 28an, dagoen etxe nagusiari lotutako lanabesentzako eraikuntza osagarria eraikitzeko.

Bigarrena.- Eskaerarekin batera IMADE SL ingeniartzako proiektua aurkeztu zuen. Proiektuak, Maria Teresa Garagalza Muñoz nekazaritza-ingeniariarena, Aragoi, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ingeniarien Elkargo Ofizialean ikus- onetsia zuen.

Proiektuak udal izapideak egiteko behar diren dokumentu guztiak ditu:

- Memoria
- Aurrekontua (exekuzio materialaren aurrekontua 24.003,69 €-koa da; Eraikuntza, Instalazio eta Obren Gainerako Zerga -ICIO- kalkulatzeko, hondakinen kudeaketarako partida eta kalitate-kontrolako partida kentzen dira, zerga-oinarria 23.592,77 €-koa izanik)
- Segurtasunari eta osasunari buruzko oinarritzko azterlana
- Nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenaren ziurtagiria
- Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko azterlana (260,92 €)
- Kalitatea kontrolatzeko plana
- Baldintzen agiria
- Planoak

Hirugarrena.- 2025eko maiatzaren 6an, udal arkitektoak txostena egin zuen.

Oinarri juridikoak

Lehenengoa.- Udal arkitektoaren txostena:

Udal arkitektoaren txostenaren argudioen atala bai etxe nagusia, zein etxola kokatuko



diren kokapen geografikoa identifikatuz hasten da; izan ere, horren arabera, legedia bat edo beste aplikatu beharko dugu. udal arkitektoaren arabera:

- Bide Etxe baserria, Bermeoko 7. poligonoko 26. partzelan kokatuta dago eta 10.907,01 m²-ko azalera du.
- Etxola 3.044,76 m²-ko azalera duen Bermeoko 7. poligonoko 17. partzelan eraikiko da, nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-erabilerak dituen landa-lurzoru gisa sailkatutakoa, N3-1 kategoriakoa.

Hori dela eta, udal arkitektoaren esanetan, partzela hori Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremutik kanpo legoke, eta Bermeoko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorraren ordenantzak zuzenean aplikatuko lirateke Bide Etxe baserriaren ondoan kokatu nahi den eraikinaren lizentzia eskaera honetan.

Bermeoko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorrari dagokionez, 2.3.24. artikulua 5. atalean arautzen ditu etxola osagarriak:

"Kotxea, lanabesak gordetzeko edo artisautzako etxeko tailerraren eraikuntza laguntzaileak baimenduko dira, etxe printzipalari atxikirik eta gehiengo okupazioa 30 m²-ko azaleragaz eta BS edo 3 m-ko altuera teilatu-hegalera, gehiengo altuera, desnibeldun zoruetan 3,5 m-koa izango da sestra punturik baxuenean eta ez da baimenduko eraikuntzarik maldak altuera handiagoa sortarazten dauan zoruetan, etxe printzipalaren diseinu eta eraikuntza kalitate berbera esijituko dalarik."

Nahiz eta indarrean dagoen Hiri Antolamendurako Plan Okorrrak ez baimendu laborantzarako tresnen biltegiatze hutsarekin lotutako eraikinen eraikuntza —hau da, aperos de labranza modura ulertzen diren eraikinak—, aztergai dugun kasuan ez da halako erabilera berezirik identifikatu.

Eraikina ez da independentea edo etxebizitza nagusitik bereizia den erabilera autonomodun instalazio bat; aitzitik, etxebizitza nagusiari atxikitako eraikin lagungarri gisa sailkatu da, eta bere funtzio nagusia etxaldearen ohiko jarduerarekin lotutako tresnak eta ekipamenduak gordetzea da, betiere erabilera pribaturako eta etxebizitza nagusiaren osagarri gisa.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012FD1700Z4P8L4A7N7W2

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 16/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 16/05/2025 10:56:24

DOCUMENTO: 2025124439

Data: 16/05/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Beraz, eraikin honen erabilera ez da laborantza-jarduera profesionalarekin edo nekazaritza-ustiapen komertzialarekin zuzenean lotzen, eta ez da sailkatu behar "aperos de labranza" moduan. Ondorioz, eraikin lagungarri gisa ulertuta, eta etxebizitzaren osagarri eta mendekotasun gisa jarduten duen heinean, baimenduta dagoen eraikuntza da HAPOn irizpideen arabera.

Udal arkitektoaren txostenarekin jarraituz, etxolak honako ezaugarriak izango dituela azpimarratzen du azken honek:

- Erabilera: Lanabesak gordetzeko erabilera.
- Azalera: 30 m²-ko azalera.
- Teilatu hegala altuera: 3 metro.
- Ur hartunea izango du.
- Ez du ez elektrizitaterik, ez komunik izango.
- Zimentua: Hormigoi armatuzko uztai bidezkoa ("zuncho"), hormigoizko lauza baten sostenituz.
- Termobuztinezko blokeez egindako itxura perimetralak izango ditu, zarpiatuta eta margotuta.
- Estalkia: egurrezkoa. Zeramikazko teilarekin gainean.

Era berean, etxolak hirigintza parametro hauek betetzen dituela dio udal arkitektoak:

"Hortaz gain, etxolak honako hirigintza-parametro hauek betetzen ditu:

- *Altuera*
- *Okupazioa*
- *Mugekiko tarteak (10 metro baino gehiagokoa)*
- *Etxe nagusiaren eraikuntza-ezaugarrien antzekoak izatea*
- *Bi isurkiko estalkia izatea, % 30eko malda, egurrezko egitura, eta oholtzaren gainean zeramikazko teila gorria duena*
- *Fatxada zarpiatuak eta zuriz margotuak izatea*
- *Zureria egurrezkoa izatea edo zura imitatzen duen aluminiozkoa"*

Illo beretik jarraituz, udal arkitektoak etxolak proiekturik behar ez duela adierazten du,



munta txikiko eraikuntza eta teknikoki sinplea den eraikuntza baita, aldi baterako edo modu iraunkorrean bizitegi izaerarik edo izaera publikorik gabea, eta solairu bakarrean garatua. Hori dela eta, Eraikuntzako Kode Teknikorik bete behar ez duela baieztatu daiteke; hala ere, honako hauek justifikatu dituela argitu du Udal arkitektoak:

"Hala ere, proiektua EKTren oinarritzko dokumentu hauek eta industria-eraikinetako araudia justifikatu ditu:

- DB SE Egituren Segurtasuna*
- DB SI suteetatik babesteko segurtasuna eta abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretua, industria-establezimenduetako suteen aurkako segurtasun-araudia onartzen duena*
- DB SUA Erabileraren segurtasuna eta irisgarritasuna*
- DB HS Osasungarritasuna*

Dokumentu horiek behar bezala justifikatu dira aplikatu beharreko ataletan."

Bigarrena.- Udal arkitektoaren proposamena

Aurreko guztiagatik, aurkeztutako proiektua teknikoki bideragarria eta legekoa dela azpimarratu daiteke; hori dela eta, Udal arkitektoak honako proposamena egiten du:

"2024ko urtarrilaren 11an aurkeztutako proiektua bat dator aplikaziozkoa den hirigintza araudiarekin, beraz oker edo hutsik ezean, hirigintza ikuspuntutik ez dago eragozpenik eskatutako lanak baimentzeko. Proiektuan, obren iraupena 3 hilabetekoa izango dela aurreikusten da.

Aurretik azaldutakoan oinarrituz, oker eta hutsik ezean, txostena obra baimena ematearen aldekoa da."

Hala ere, zenbait baldintza betetzearen baldintzapean jartzen du aldeko txosten hori, erabakiaren atalean sakonduko direnak.

Hirugarrena.- Obra lizentzia

Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207 eta 210 artikuluek eta Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/ 1978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek



xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazioa indarrean dagoen araudiarekin bat dator. Era berean, eskaria bat dator baita hirigintza araudiarekin, udal arkitektoak 2025eko maiatzaren 6an egindako txostenena aipatzen den bezala.

Kasu honetan, obra lizentzia eman beharra dago, 2/2006 Legeko 207.1 artikulua ezartzen duen moduan. Baimena emateko prozedurari dagokionez, honela laburbildu daiteke:

- a) Hasiera: Prozedura interesdunak eskaturik hasiko da. Horretarako, eskabidea aurkeztu beharko da eta dagokion dokumentazio teknikoa erantsi.

2024ko urtarrilaren 11an, M^a D.A.G. andreak obra-lizentzia eskatu zuen Bermeoko Bide Etxe baserrian, Mañu auzoko 28an, dagoen etxe nagusiari lotutako lanabesentzako eraikuntza osagarria eraikitzeko. Eskaearekin batera IMADE SL ingeniarietako proiektua aurkeztu zuen. Proiektuak, María Teresa Garagalza Muñoz nekazaritza-ingeniariarena, Aragoi, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ingeniariei Elkargo Ofizialean ikus-onetsia zuen.

- b) Instrukzioa: Baimena emon aurretik, udal zerbitzu teknikoek beharrezko txostenak egin beharko dituzte, eskatutako lizentzia hirigintzako legediarekin bat datorrela egiaztatzeko.

Udal arkitektoak, maiatzaren 6an egin zuen bere txostena; teknikoak, oster, idatzi honen bitartez.

Prozeduraren instrukzioan zehar baimenaren eraginpeko beste administrazio publiko batzuek txostenak egitea derrigorrezkoa den kasuetan, udalak eskabidea aurkeztu dela jakinarazi beharko zaie, hilabeteko epean behar diren txostenak egin ditzaten, bere eskumenaren arabera. Hilabeteko epean txostenik ematen ez bada, udal baimena emateko prozedurarekin jarraitu ahal izango da.

Kasu honetan, udal arkitektoaren txostenean ondo adierazten den lege, etxola ur zaintzako eremuan dago, Komaisteneko ibilgutik 60 metrora. Honi dagokionez, URA Uraren Euskal Agentziari ematea dagokion txostena aldekoa da, udal arkitektoaren txostenean aipatzen den bezala:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012FD1700Z4P8L4A7N7W2

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 16/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 16/05/2025 10:56:24

DOCUMENTO: 2025124439

Fecha: 16/05/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



"Eremu horretan, Komaisteneke errekek 0,1 km²-ko azalerako isuri-arroa drainatzen du, eta etxolak ez dio eragiten Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak adierazten duen 5 m-ko zabalerako zortasun-eremuari.

URA Uraren Euskal Agentzia da polizia-eremuan dauden eraikuntza-obra baimentzeko eskumena duen erakundea.

Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2024ko maiatzaren 10eko ebazpenaren bidez, M.D.A.G. andreari baimena eman zitzaion Bermeoko udal-mugarteko 17. partzelako 7. poligonoan 30 m²-ko lanabes-etxola eraikitzeko.

Ebazpenak 7 baldintza berezi eta 11 baldintza orokor ditu."

- c) Ebazpena: Behar diren txostenak egin ondoren, organo eskudunak baimena emateari buruzko ebazpena emango du, espedientean dauden datu guztiak ikusi ondoren.

Kasu honetan, alkateak izango du eskumena, hirigintza lizentziarako 2/2006 Legeko 209.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, TAOLeko 21.1.q) artikuluekin bat etorritik, baina eskumen hori 2024 000001886 Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.

Gainera, lizentzia ematen duen ebazpenak, gutxienez, honako honek jaso beharko ditu: obra hasteko epea, egikaritzeko gehieneko epea eta sustatzaileari egotzi ahal zaion arrazoiren batengaitik obren exekuzioa etenda egon daitekeen gehieneko aldia, 2/2006 Legearen 215. artikulua ezartzen duen bezala.

Laugarrena.- Araudi aplikagarriak ez badu berariaz jasotzen ordenantza baten bidez (Bermeoren kasuan bezala) eta modu subsidiarioan, berariazko ebazpena jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez, lizentzia-eskaera aurkezten denetik kontatzen hasita, udalak zuzentzeko edo hobetzeko errekerimendurik egin barik (2/2006 Legearen 210.7 artikulua).

Bosgarrena.- Obra lizentzia eskuratzeak egintza eta eragiketak burutzeko zilegitasuna ematen du, bai eta kasuan kasuko erabilerak ezarri eta garatzeko ere. Hala ere, ezin izango dira inolaz ere eskuratu, ez administrazioaren isiltasun positiboaren bidez, ez hirigintza-antolamenduarekin indarrean dagoen legeriarekin bat ez datozen ahalmen edo eskubideak, 2/2006 Legeko 211.1 artikulua ezartzen dauen moduan.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012FD1700Z4P8L4A7N7W2

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 16/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 16/05/2025 10:56:24

DOCUMENTO: 2025124439

Fecha: 16/05/2025

Lekua: Bermeo

Erregistro unidada:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012FD1700Z4P8L4A7N7W2



Lizentziak hirigintza-antolamenduko planeamenduarekin bat ez badatoz gerora, tresna berri bat onartzearen edo lizentzia emotean indarrean dagoena aldatzearen ondorioz, eta obrak oraindik amaitu ez badira, udalak arrazoituta adieraziko du desadostasuna, eta, kautelazko neurri gisa, obrak berehala etetea erabaki beharko du, gehienez ere lau hilabetez.

Epe horren barruan, eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia osorik edo zati batean ezeztatu ahal izango da, eta hasitako obrak nola eta zein baldintzatan amaitu ahal izango diren zehaztuko da, eragindako kalte-galerengatik zer kalte-ordain emongo den zehaztuta.

Seigarrena.- Obrak hasi barik badaude edo amaitu barik badaude, edo sustatzaileari egotzi ahal zaion arrazoiren batengaitik etenda badaude, lizentzian ezarritako epeak urratuz, udalak lizentzia iraungi dela adierazi beharko duu, aldez aurretik administrazio prozedura abiarazita eta interesdunari entzunda, eta hori guztia kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik barik (2/2006 Legearen 216. artikulua).

Egoera hori saihesteko, lizentzian aurreikusitako epeak luzatzeko eskatu ahal izango da, era arrazoituan. Hala ere, lizentzia iraungi dela adierazi ondoren, interesdunak berriro eskatu ahal izango du, edozein unetan.

Zazpigarrena.- Hondakinen kudeaketari dagokionez, Eraikuntzako eta eraispeneko Hondakinen Ekoizpena eta Kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 5. artikulua ezartzen duenez, obra-lizentziak lortzeko, udalek fidantza bat eratzeko eskatu beharko dute, obra handietatik datozen eraikuntza eta eraispene hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko, hondakinen kudeaketaren kostuaren % 120koa, baimenaren eskatzailea Erkidegoko Ingurumen Kudeaketa eta Auditoretzako Sistemari (EMAS) atxikitako erakundearen erregistroan inskribatuta dagoen kasuetan izan ezik.

Kasu honetan, Hondakinen Kudeaketa Bermea 313,10 eurokoa izango da, eta abal hori itzuli egingo da hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena eta egiaztatutako erakundearen egiaztapena aurkeztzen direnean. Abal hori, 2025eko maiatzaren 7an jarri



Sinadurea eta data



da.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2024ko urtarrilaren 11ean, M^a D.A.G. andreak Bermeoko Bide Etxe baserrian, Mañu auzoko 28an, dagoen etxe nagusiari lotutako lanabesentzako eraikuntza osagarria eraikitzeko eskatutako obra lizentzia ematea **onartzea**.

BIGARRENA.- Obra lizentziaren eraginkortasuna arkitektoaren txostenean ezarritako ondorengo baldintzak betetzera baldintzatzea:

- Obra baimena 2024ko urtarrilaren 11an aurkeztutako proiektuan oinarritzen da. Proiektuaren aldaketarik balego, udalari aldaketa horien egokitasuna zuzena den ala ez adieraztea eskatu beharko zaio. Hala egin ezean, obra baimenera egokitzen ez diren lanak ezkutuko jarduketatzat hartuko dira.
- Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2024ko maiatzaren 10eko ebazpenean adierazitako baldintzak beteko dira. Ebazpen horren bidez, M.D.A.G. andreari baimena eman zitzaion Bermeoko udal-mugarteko 17. partzelako 7. poligonoan 30 m²-ko lanabes-etxola eraikitzeko.
- Lizentzia jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenen kaltetan izan gabe ematen da. Ezin izango da alegatu onuradunek beren jarduerak gauzatzean izan duten erantzukizun zibila edo penala baztertzeko edo gutxitzeko.
- Lizentzia indarrrik gabe geratuko da baldintzapean dituen baldintzak betetzen ez badira, eta ezeztatu egingo da lizentzia ematea eragin zuten inguruabarrak desagertzen direnean edo, halakorik izan balitz, lizentzia ukatzea justifikatuko zuketenean beste inguruabar batzuk sortzen direnean.
- Jabari publikoa okupatuz gero, ez du lizentzia honek babestuko, eta, beraz, dagokion lizentzia eskatu beharko du, modu independentean.
- Obra-lizentziaren titulartasuna aldatzen bada, udalari jakinarazi beharko zaio, bai lehengo titularrak, bai berriak izenpetutako eskabide baten bidez, zeinak berariaz



bere gain hartuko baititu, dokumentu horretan, lizentziaren ondoriozko karga guztiak. Horiek eskritura publikoan jasotzen badira, titular berriak formalitate berberekin hartu beharko ditu bere gain.

- Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.
- Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuen benetakotasunaren erantzulea, baita obretan sortzen diren gorabeherena ere. Kasu horretan, Udalari aldeztu aurretik jakinaraziko zaio inguruabar hori, eta azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko zaio, eta gorabehera horien erantzuletzat joko da.
- Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, eta lanabesak eta materialak erortzea saihestuko da babes-biserak, olanak eta abar jarritz, indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrien arabera.

Lizentziaren titularra obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea izango da, eta udalaren baimena ezin izango da eskatu erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.

- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren eta lizentzia emateagatiko tasaren likidazioa onartzea. Horiek behar bezala eta epean ordaindu beharko dira.

Zergaren likidazioa behin-behinekoa da, eta eskatzaileak obrak amaitzean obren azken ziurtagiria aurkeztu beharko du. Agiri horiek dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsitako obren teknikari zuzendariak idatzi behar ditu behin betiko likidazioa egiteko.

Tasa ordaintzeko betebeharra lizentzia ematearekin batera gertatzen da, obrak egin ala ez.

- Obran, interesdunak proiektuaren ale bat eduki beharko du udaleko agintari eta funtzionario eskudunen eskura, behar bezala zigilatuta eta onartuta.



- Obrak gehienez ere sei (6) hilabeteko epean hasi beharko dira, lizentzia indarrean jartzen denetik, eta obrak hasi eta sei (6) hilabete igaro baino lehen amaitu beharko dira. Sustatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik obrak geldirik egoteko epea ezin izango da 3 hilabetetik gorakoa izan.

Obren hasiera eta amaiera udalari jakinarazi beharko zaizkio.

Epe horiek betetzen ez badira, lizentzia iraungita eta ondoriorik gabe deklaratu da, eta, aldi berean, obrak dauden egoeran geldiarazteko betebeharra izango da, zehapen-ohartarazpena eginez, salbu eta pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko behar-beharrezkoak diren lanei dagokienez, horiek udalaren ikuskaritzapean egingo baitira.

Lizentziaren titularrak, bi epeetako edozein amaitu baino, gutxienez, hilabete lehenago, luzapena eskatu ahal izango du, atzerapenaren arrazoiak behar bezala justifikatzen dituen eskabide baten bidez. Luzapen bakarra emango da, eta, gehienez ere, goian adierazitako epe bakoitzaren erdikoa.

Hala ere, luzapen hori ezinbesteko arrazoiek eragindako atzerapenei kalterik egin gabe emango da. Atzerapen horiek, nolanahi ere, behar bezala argudiatu beharko dira Udalean, idatziz.

- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

HIRUGARRENA.- Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira udaletxean:

- Instalazioei eta egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obretan aldaketarik egon izanez gero, sortu diren aldaketen memoria aurkeztu beharko da. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren teknikariek sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non



besteak beste ageriko den, lanek indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea.

- Kalitate-kontrolaren ziurtagiria aurkeztuko da.
- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txostena aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori 112/2012 Dekretuaren III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraituz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraituz.
- b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak edo betelanelarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.
- c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispen-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitorpena.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012FD1700Z4P8L4A7N7W2

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
16/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 16/05/2025 10:56:24

DOCUMENTO: 2025124439

Fecha: 16/05/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



– Ikuspuntu desberdinetatik ateratako lau argazki aurkeztuko dira gutxienez.

LAUGARRENA.- Obraren exekuzio materialaren aurrekontua 24.003,69 €-koa da; Eraikuntza, Instalazio eta Obren Gaineko Zerga -ICIO- kalkulatzeko, hondakinen kudeaketarako partida eta kalitate-kontrolako partida kentzen dira, zerga oinarria 23.592,77 €-koa izanik.

BOSGARRENA.- Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenaren eskubideari kalterik egin gabe, eta lizentziaren titularraren erantzukizun eskusibopean.

SEIGARRENA.- Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

ZAZPIGARRENA.- Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributuoak likidatzeko.

ZORTZIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekursoak adieraziz.

4.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Alkateak sinatutako eta estrategikoak diren dekretuen berri eman du.

5.- ESKARI ETA ITAUNAK

Ez da egon eskari eta itaunik.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa



jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Bermeoko Udalaren bilkura hau ikus-entzunezko euskarrian grabatu da "20250513_TGB.mp4" izeneko dokumentu digitalean, "Tokiko Gobernu Batzarra 13-05-2025" aktari dagokionean. Akta hori udal-sistema informatikoan gordetzen da, eta haren osotasuna eta egiazkotasuna bermatuta geratzen dira bilkuraren administrazio-espeditate elektronikoa erantsitako dokumentu elektronikoen bidez, Eta ondorengo Osotasun Kodearekin (SHA-256):

50933282fa39f733e838d9764d9a814f91b78e7d8948240e6fb4e61a6a669c9b

Euskarri horretan jasota daude bilkuraren eguneroko eztabaidetan parte hartu duten zinegotzien eztabaidak eta bozketak. Akta hau eskuragarri egongo da hurrengo helbide honetako atari pribatuan:

<https://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/pribatua/>

Orri oinean sinatzaileak eta datak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012FD1700Z4P8L4A7N7W2

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 16/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 16/05/2025 10:56:24

DOCUMENTO: 2025124439
Data: 16/05/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

